Hernaniko Udala

HERNANIKO HIRI ANTOLAMENDURAKO
ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENAREN
TESTU BATEGINA

2011ko APIRILA

BEHIN BETIKO ONARPENA



C AGIRIA

KATALOGOA

UDALEKO HIRIGINTZA BULEGOA

Hernaniko Udala

HERNANIKO HIRIGINTZA-PLANEAMENDURAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENAREN TESTU BATEGINA

2011ko APIRILA

C - AGIRIA

KATALOGOA

BEHIN BETIKO ONARPENA

UDALEKO HIRIGINTZA-BULEGOA

ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENAREN TESTU BATEGINAREN AURKIBIDE OROKORRA

A Agiria - MEMORIA

A.1 – Hirigintza-antolamenduaren eta horren exekuzioaren azalpen-memoria eta justifikazio-memoria.
A.2 – Ingurumen-iraunkortasunaren txostena. Memoria/Planoak.

B Agiria - HIRIGINTZA-ARAUAK

B.1 – Hirigintza Arau Orokorrak.
B.2 – Hirigintza Arau Bereziak.

C Agiria - KATALOGOA

D Agiria - JARDUKETA-PROGRAMA
BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOAREN AZTERKETA

E Agiria - PLANOAK

I – Informazio-planoak.
II – Antolamendu orokorraren planoak.
- II.1 Hirigintza-Erregimen Orokorra.
- II.2 Komunikazio Sare Orokorrak.
- II.3 Zuzkidura Sarea (Sistema Orokorrak).
- II.4 Zerbitzu Sare Orokorrak.
- II.5 Gainjarritako antolamendu-baldintzak.

III – Katalogoko Planoak (C agiriari atxikiak).
IV – Antolamenduko plano argigarria.
V – Antolamendu xehakatuko planoak (B.2 agiriari atxikiak).

ERANSKINAK

– Hernaniko Mugikortasun Iraunkorrerako Plana (2010). Endara Injenieritza.
– Urumea Ibaiaren Azterketa Hidrauliko Osagarria (2009). Ikaur.

C AGIRIAREN AURKIBIDEA - "KATALOGOA" **Orr.**

1. – Agiri honen xedea 1

2. – Babestu beharreko elementuen kategoria 1

3. – Hirigintzaren, arkitekturaren eta historiaren aldetik interesa duten elementuen zerrenda 3

3.1.- I - Motako Babes Erregimenean sartzen diren ondasunak 3
3.2.- II - Motako Babes Erregimenean sartzen diren ondasunak 3
3.3.- III - Motako Babes Erregimenean sartzen diren ondasunak 4
3.4.- IV - Motako Babes Erregimenean sartzen diren ondasunak 4

4. – Arkeologia-interesa duten guneen zerrenda 5

4.1.- Kalifikatutako kultura-ondasunen erregistroan Monumentu Multzo kategoriarekin inskribatutako arkeologia-guneak 5
4.2.- Euskal kultura-ondarearen inbentario orokorrean Monumentu Multzo kategoriarekin inskribatutako arkeologia-gunea 6
4.3.- Presuntzio arkeologikoko guneak 6

5. – Natura-interesa duten elementuen zerrenda 7

5.1.- Babes berezia behar duten naturako ondasun eta elementuak 7
5.2.- Udal babesa behar duten naturako ondasun eta elementuak 7

6. – Udalerriko hirigintza-, arkitektura- eta historia-ondarearen babes-erregimena 7

6.1.- I – Motako Babesa: Kalifikatutako Kultura Ondasun gisa izendatutako Monumentuak eta Monumentu Multzoak 8
6.2.- II – Motako Babesa: 1997ko irailaren 23an onartutako "Hernaniko Hirigune Historikoaren Birgaikuntzarako Plan Bereziaren" katalogoan gaineratutako elementuak 8
6.3.- III – Motako Babesa: Euskal Autonomia Erkidegoko Monumentu edo Monumentu Multzo gisa izendatzeko proposatutako elementuak 8
6.4.- IV – Motako Babesa: Udal babesa behar duten elementuak 9

7. – Udalerriko arkeologia-ondarearen babes-erregimena 9

7.1.- Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erregistroan Monumentu Multzo kategoriarekin inskribatutako arkeologia-guneak 10
7.2.- Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean Monumentu Multzo kategoriarekin inskribatutako arkeologia-gunea 10
7.3.- Presuntzio arkeologikoko guneak 10

8. – Udalerriko natura-ondarearen babes-erregimena 10

8.1.- Babes berezia behar duten naturako elementuak 10
8.2.- Udal babesa behar duten naturako elementuak 11

ERANSKINA – Katalogatutako elementuen deskribapena 12

A.- Euskal Autonomia Erkidegoko Monumentu edo Monumentu Multzo gisa izendatzeko proposatutako elementuen Deskribapen Osagarria 12

B.- Udal babesa behar duten elementuen Deskribapen Osagarria 13

“KATALOGOA” – C AGIRIAREKIN BATERA DOAZEN PLANOAK

III.1 Katalogatutako ondarea. Udal barrutia (1 / 15.000 eskala)

III.2 Katalogatutako ondarea. Hiribarrua (1 / 4.000 eskala)

1. – AGIRI HONEN XEDEA

Kulturaren edo naturaren aldetik duten balioa dela eta, babestu egin behar diren elementuak proposatzea da Katalogo honen helburua, besteak beste, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 6/2006 Legearen 76. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta.

Horretarako, elementu horiek, batetik, zenbait kategoriatan sailkatuta geratzen dira beren izaeraren arabera, eta bestetik, multzokatu egiten dira bakoitzari aplikatu behar zaion babes-erregimen zehatzaren arabera.

Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategin honetako Hirigintza Arau Orokorren Zortzigarren Tituluan (119. artikulua eta hurrengoak) ezarritako zehaztapenek osatu egiten dituzte agiri honetan erabakitako zehaztapenak.

Hirigintza Arau Orokorretako 125. artikuluan Katalogo honen eta haren zehaztapenen irismen arauemailea zehazten da.

2. – BABESTU BEHARREKO ELEMENTUEN KATEGORIA

Babes daitezkeen elementuak, Katalogo honetan proposatzen den moduan, hiru kategoriatan antolatzen dira bakoitzaren ezaugarrien arabera:

1.- Hirigintzaren, arkitekturaren eta historiaren aldetik interesa duten elementuak.
2.- Arkeologia-interesa duten guneak.
3.- Natura-interesa duten elementuak.

Kategoria bakoitzean, eta proposatutako babes-mailaren arabera, honako multzo hauek finkatu dira:

1.- Hirigintzaren, arkitekturaren eta historiaren aldetik interesa duten elementuak (ikus Katalogo honen 3. ataleko zerrenda)

* I - Motako Babes Erregimena:

Multzo honetan sartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura Ondasun Kalifikatu gisa izendatzen diren Monumentuak eta Monumentu Multzoak. Dagozkien izendapenean erabakitako babes-erregimenari atxikita dauden elementuak dira. Eusko Jaurlaritzak finkatzen ditu sailkapen horiek, hura baita Euskal Herriko kultura-ondarean eskumena duen erakundea.

* II - Motako Babes Erregimena:

Multzo honetan sartzen dira 1997ko irailaren 23an onartutako “Hernaniko Hirigune Historikoaren Birgaikuntzarako Plan Bereziaren” katalogoan dauden elementuak. Bertan ezarri den

sailkapenari kalterik egin gabe, bi Azpi-mota proposatzen dira, bakoitza bere babes-erregimen zehatzarekin (ikus aipatutako Plan Bereziaren 49 eta 50. artikuluak):

- II-a Motako Babes Erregimena, interes orokorreko eraikinak:
  Monumentu Historiko eta Artistiko gisa izendatu diren edo halakotzat sailkatzeko espedientea abian duten eraikinak, eta hiri-egituran garrantzia handia duten eraikinak, arkitekturaren, kulturaren eta historiaren aldetik duten balioa dela eta. Kategoria honetan sartzen dira etxearen jatorrizko profila mantentzen duten —Erdi Aroko etxeen gisakoa— eta hiri-egituraren paisaian funtsezkoak diren eraikinak.

- II-b Motako Babes Erregimena, interes partzialeko eraikinak:
  Balio estilistiko bereziko elementuak mantentzen dituzten —teilatu-hegalak, behe-solairuko paramentuak, fatxada-zatiak, burdineriak, mentsulak, harburuak, bao-azpadurak, mehelinen ertzak, eta abar—, baina oso-osorik hartuz gero interes orokorreko eraikin gisa sailkatu ezin diren eraikinak.

* III - Motako Babes Erregimena:

Multzo honetan sartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Monumentu gisa izendatzeko proposatzen diren eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak egindako Historia eta Arkitektura Ondarearen Behin Behineko Inbentarioa oinarritzat hartuta erabaki diren elementuak.

* IV - Motako Babes Erregimena:

Multzo honetan sartzen dira babesa eta zaintza behar duten elementuak; horien balioek udal intereseko maila dute gaur egun.

2.- Arkeologia-interesa duten guneak (A) (ikus Katalogo honen 4. ataleko zerrenda)

* Kalifikatutako kultura-ondasunen erregistroan Monumentu Multzo kategoriarekin inskribatutako arkeologia-guneak.

* Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean Monumentu Multzo kategoriarekin inskribatutako arkeologia-gunea.

* Presuntzio arkeologikoko guneak. Hauen barnean sartzen dira, zenbait aztarnen eta iturriren bitartez, arkeologia-aztarnategi bat duten guneak, horien kontserbazio-egoerari eta interes-mailari buruzko datuak ez baditugu ere.

3.- Natura-interesa duten guneak (N) (ikus Katalogo honen 5. ataleko zerrenda)

* Babes berezia behar duten naturako ondasun eta elementuak.

Multzo honetan sartzen dira, horien natura-balioak direla eta, Udalaz gaindiko erakundeen babes-xedapenak bete behar dituzten gune eta elementuak:

- Interes Komunitarioko Lekuak (IKL) eta Natura Parkeak:
Natura 2000 Sarea Europako sare ekologikoaren barnean dauden eta/edo EAEko natura-gune babestuak osatzen dituzten ekosistema hauek natura-habitatak eta basoko fauna eta flora kontserbatzen direla bermatzeko babesten dira.

- Zuhaitz bereziak:
Beren berezitasuna eta/edo ezaugarri nabarmenak (espeziea, neurria, adina, historia, edertasuna, egoera eta abar) direla eta, modu berezian babestu behar diren zuhaitzak dira.

* Udal babesa behar duten naturako ondasun eta elementuak.

Udalerriko hiri-parke publikoak sartzen dira multzo honetan, eta naturaren eta paisaiaren aldetik izan ditzaketen balioak mantendu behar dira.

3. – HIRIGINTZAREN, ARKITEKTURAREN ETA HISTORIAREN ALDETIK INTERESA DUTEN ELEMENTUEN ZERRENDA

3.1 I - Motako Babes Erregimenean sartzen diren ondasunak.

I - MOTAKO BABES-ERREGIMENA			
ZK.	**BABESTUTAKO ERAIKINA EDO ELEMENTUA**	KOKAPENA	ARAUDIA
I-1	Hirigune Historikoa	(HE) HS.01	EHAA 1996-01-16
I-2	San Agustin Komentua	(HI) AG.03	EHAA 2001-08-21
I-3	Done Jakue Bidea (Trazatua eta Fagollagako Zubia)	Zenbait	EHAA 2000-02-11

3.2 II - Motako Babes Erregimenean sartzen diren ondasunak.

II - MOTAKO BABES-ERREGIMENA			
ZK.	**BABESTUTAKO ERAIKINA EDO ELEMENTUA**	KOKAPENA	ARAUDIA
II-a	Interes orokorreko eraikinak, Hernaniko HHBPB arabera.	(HE) HS.01-02-03	EHAA 1997-10-09
II-b	Interes partzialeko eraikinak, Hernaniko HHBPB arabera.	(HE) HS.01	EHAA 1997-10-09

3.3 III - Motako Babes Erregimenean sartzen diren ondasunak.

III - MOTAKO BABES-ERREGIMENA		
ZK.	**BABESTUTAKO ERAIKINA EDO ELEMENTUA**	KOKAPENA
III-1	Santa Barbara Gotorlekua	Landa Lurzorua
III-2	Zabalaga Baserria (Errekalde)	Landa Lurzorua
III-3	Pitikar Baserria (Jauregi)	Landa Lurzorua
III-4	Leokako Garbitegia	(HE) HS.03
III-5	Santa Kruz Santutxoa	(HE) HS.03
III-6	Lizeagako Zubibidea	(HE) HS.03
III-7	Ereñotzu Baserria (Dorrea)	(UG) ER.01
III-8	Fagollagako Burdinola (Zementu Fabrika)	Landa Lurzorua
III-9	Pagoagako Santiago Zentral Hidroelektrikoa	Landa Lurzorua
III-10	Pikoaga Zentral Hidroelektrikoa (Abilats)	Landa Lurzorua
III-11	Ereñotzu Zentral Hidroelektrikoa	Landa Lurzorua
III-12	Fagollaga Zentral Hidroelektrikoa	Landa Lurzorua
III-13	Lastaola Zentral Hidroelektrikoa	Landa Lurzorua
III-14	Epeleko Labeak	Landa Lurzorua

3.4 IV - Motako Babes Erregimenean sartzen diren ondasunak.

IV - MOTAKO BABES-ERREGIMENA		
ZK.	**BABESTUTAKO ERAIKINA EDO ELEMENTUA**	AZPI-EREMUA
IV-1	Santa Barbara Ermita	Landa Lurzorua
IV-2	Ereñotzuko San Antonio Eliza	(UG) ER.01
IV-3	Pagoagako Santiago Ermita	Landa Lurzorua
IV-4	San Jose Parrokia (Florida)	(HI) FL.04
IV-5	Lonja Etxea (Portu)	(UE) PK.05
IV-6	Aldagaia Baserria (Portu)	(UE) PK.05
IV-7	Altzega Baserria (Zikuñaga)	(UE) ZE.06
IV-8	Bidaurreta Baserria (Antziola)	Landa Lurzorua
IV-9	Ilarratzueta Baserria (Jauregi)	Landa Lurzorua
IV-10	Lonja Baserria (Ereñotzu)	(UG) ER.01
IV-11	Karabelgo Zubia	Zenbait
IV-12	Karabelgo Zubibidea	Zenbait
IV-13	Etxola Errekako Zubia	Landa Lurzorua
IV-14	Olaberria Zubia	Landa Lurzorua
IV-15	Epele Errota	Landa Lurzorua
IV-16	Puig-tarren Ozpin Fabrika (Latxe)	Landa Lurzorua
IV-17	Biteri Eskolak (Kultur Etxea)	(HE) ZG.01
IV-18	Zikuñagako Ama Haurtzaindegia	(HH) TX.02
IV-19	Latsunbe Auzoko Eraikinak eta Partzelak:	
IV-19.1	28 zk. (Ave Maria etxea)	(HM) VI.02
IV-19.2	30 zk. (Rosario etxea)	(HM) VI.03
IV-19.3	36 zk. (Oriamendi etxea)	(HM) VI.03
IV-19.4	38 zk. (Sorgintxulo etxea)	(HM) VI.03
IV-19.5	38 zk. bis	(HM) VI.03
IV-19.6	40 zk. (Amalia etxea)	(HM) VI.03

IV-19.7	42 zk. (Gure Borda)	(HM) VI.03
IV-19.8	46 zk. (Nere Borda)	(HM) VI.03
IV-20	Ezkiagako Frontoia	(HE) HS.01
IV-21	Koronelaren Harria	Landa Lurzorua
IV-22	Onddi Dorrea (Orona)	(UG) LS.01
IV-23	Interes etnologikoko partzelazioak:	
IV-23.1	Sarobeak: Akola - 1	Landa Lurzorua
IV-23.2	Akola - 2	Landa Lurzorua
IV-23.3	Akola - 3	Landa Lurzorua
IV-23.4	Onddi - 1	Landa Lurzorua
IV-23.5	Onddi - 2	Landa Lurzorua
IV-23.6	Onddi - 3	Landa Lurzorua
IV-23.7	Igerola - 1	Landa Lurzorua
IV-23.8	Zilegiak: Etzio - 1	Landa Lurzorua
IV-24	Osinagako Errotako Presa eta Ubidea	Landa Lurzorua
IV-25	Oihanederreko Zubi Esekia	Landa Lurzorua
IV-26	Elorrabiko Zubi Esekia	Landa Lurzorua
IV-27	Urumea Ibaiko Garbitegia (Oihaneder)	Landa Lurzorua
IV-28	Tolarietako Zubia	Landa Lurzorua
IV-29	Harriatsuko Eskolak	Landa Lurzorua
IV-30	Fusilamenduen Horma (Hernaniko Hilerria)	(HH) EL.06

"III.1 - Ondare katalogatua. Udalerria" eta "III.2 Ondare katalogatua. Hiri-ingurunea" planoetan ageri da aipatutako ondasun horien kokapena.

4. – ARKEOLOGIA-INTERESA DUTEN GUNEEN ZERRENDA

4.1 Kalifikatutako Kultura Ondasunen erregistroan Monumentu Multzo kategoriarekin inskribatutako arkeologia-guneak.

ZK.	KALIFIKATUTAKO KULTURA-ONDASUNEN ERREGISTROAN MONUMENTU-MULTZO KATEGORIAREKIN INSKRIBATUTAKO ARKEOLOGIA-GUNEAK	ARAUDIA EHAA 2003-07-08
A-1	IGOIN-AKOLAKO ESTAZIO MEGALITIKOA	"
A-1.1	Akolako Lepua I Trikuharria	"
A-1.2	Akolako Lepua II Trikuharria	"
A-1.3	Arritxietako Trikuharria	"
A-1.4	Igoingo Lepua I Trikuharria	"
A-1.5	Sagastietako Lepua I Trikuharria	"
A-1.6	Sagastietako Lepua II Trikuharria	"
A-1.7	Igoingo Lepua II Trikuharria	"
A-2	ONDDI-MANDOEGIKO ESTAZIO MEGALITIKOA	"
A-2.1	Ezioko Soroako Harrespila	"
A-2.2	Ezioko Tontorrako Harrespila	"
A-2.3	Unameneko Harrespila	"
A-2.4	Altxistako Harrespila	"
A-2.5	Etzelako Harrespila	"
A-2.6	Mulisko Gainako Harrespila	"

OHARRA: Gune hauek guztiak Landa Lurzoruan kokatuta daude.

4.2 Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean Monumentu Multzo kategoriarekin inskribatutako arkeologia-gunea.

ZK.	EUSKAL KULTURA-ONDAREAREN INBENTARIO OROKORREAN MONUMENTU-MULTZO KATEGORIAREKIN INSKRIBATUTAKO ARKEOLOGIA-GUNEA		ARAUDIA EHAA 1998-03-31
A-3	Hirigune Historikoa	(HE) HS.01-02	“

4.3 Presuntzio arkeologikoko guneak.

ZK.	PRESUNTZIO ARKEOLOGIKOKO GUNEAK		ARAUDIA EHAA 1997-02-21
A-4.1	1873 - 1876 urteetako Gerrako Harresia (E Gakoa)	(HE) HS.03	“
A-4.2	San Juan Bataiatzailearen Parrokia Zaharra / San Agustin Komentua (B Gakoa)	(HE) HS.01	“
A-4.3	Leoka Etxea (A Gakoa)	(HE) HS.03	“
A-4.4	Lonja (etxea gaur egun) (A Gakoa)	(UE) PK.05	“
A-4.5	Sastiako San Martin Ermita (ageriko egiturarik gabe) (E Gakoa)	(HI) SG.06	“
A-4.6	Santa Barbara Ermita (baserria gaur egun) (A Gakoa)	Landa Lurzorua	“
A-4.7	Zeagoko Errota (industria gaur egun) (D Gakoa)	(UE) ZE.06	“
A-4.8	Osinagako Errota (D Gakoa)	Landa Lurzorua	“
A-4.9	Errotarane Burdinola (ageriko egiturarik gabe) (E Gakoa)	Landa Lurzorua	“
A-4.10	Epele Dorretxea (ageriko egiturarik gabe) (A Gakoa)	(UG) EP.05	“
A-4.11	Fagollagako Burdinola (ageriko egiturarik gabe) (D Gakoa)	Landa Lurzorua	“
A-4.12	Ereñotzuko Burdinola (baserria gaur egun) (D Gakoa)	Landa Lurzorua	“
A-4.13	Ereñotzuko Dorretxea (baserria gaur egun) (A Gakoa)	(UG) ER.01	“
A-4.14	Bazterrolako Burdinola (aurriak) (D Gakoa)	Landa Lurzorua	“
A-4.15	Abillatse Burdinola (ageriko egiturarik gabe) (E Gakoa)	Landa Lurzorua	“
A-4.16	Ubarratua Burdinola (aurriak) (D Gakoa)	Landa Lurzorua	“
A-4.17	Lasa Burdinola (ageriko egiturarik gabe) (E Gakoa)	Landa Lurzorua	“
A-4.18	Pikoaga Burdinola (ageriko egiturarik gabe) (E Gakoa)	Landa Lurzorua	“
A-4.19	Pagoaga Burdinola (D Gakoa)	Landa Lurzorua	“
A-4.20	Aparrain Burdinola (eskorta gaur egun) (ageriko egiturarik gabe) (E Gakoa)	Landa Lurzorua	“
A-4.21	Urruzuno Burdinola (ageriko egiturarik gabe) (E Gakoa)	Landa Lurzorua	“
	Arkeologia-interesa duten beste elementu batzuk:	Landa Lurzorua	“
A-4.22	Zikuñagako Ama Birjinaren Ermita	(UE) ZE.06	“
A-4.23	Franko Errota	Landa Lurzorua	“
A-4.24	Akolako Lepua III Tumulua	Landa Lurzorua	“
A-4.25	Etzelako Txokoa Tumulua	Landa Lurzorua	“

“III.1 - Ondare katalogatua. Udalerria” eta “III.2 Ondare katalogatua. Hiri-ingurunea” planoetan ageri da aipatutako ondasun horien kokapena.

5. – NATURA-INTERESA DUTEN ELEMENTUEN ZERRENDA

5.1 Babes berezia behar duten naturako ondasun eta elementuak.

NATURA-INTERESA DUTEN GUNEAK (N)			
ZK.	**BABES BEREZIA BEHAR DUTEN NATURAKO ONDASUN ETA ELEMENTUAK**	KOKAPENA	ARAUDIA
N-1.1	Aiako Harria Parkea (IKL eta Natura Gune Babestua)	Landa Lurzorua	92/43/EEE Arteztaraua NBAP EHAA 95-06-05 EKPZ EHAA 02-04-10
N-1.2	Urumea Bailara (IKL)	Landa Lurzorua	92/43/EEE Arteztaraua
N-1.3	Goiz Eguzki parkeko zuhaitz berezia (Ginkgo Biloba)	(HE) HS.03	EHAA 1997-02-25
N-1.4	Nere Bordako zuhaitz berezia (Pinus Radiata)	(HM) VI.04	EHAA 1997-02-25

5.2 Udal babesa behar duten naturako ondasun eta elementuak.

ZK.	**UDAL BABESA BEHAR DUTEN NATURAKO ONDASUN ETA ELEMENTUAK**	KOKAPENA
N-2	Hiri Parke Publikoak:	
N-2.1	Ave Maria	(HM) VI.02
N-2.2	Mendi Mendian	(HM) VI.02, (HM) VI.06 eta (HM) VI.07
N-2.3	Nere Borda	(HM) VI.04
N-2.4	Atarrabio	(HM) LA.02
N-2.5	Karrero	(HM) KA.03
N-2.6	Atzieta	(HE) HS.03
N-2.7	San Antonio	(HH) EL.04
N-2.8	Politena	(HI) ET.02-04
N-2.9	Ezkiaga Pasealekua	(HE) HS.01
N-2.10	Iturmendi	(HI) SG.04

"III.1 - Ondare katalogatua. Udalerria" eta "III.2 Ondare katalogatua. Hiri-ingurunea" planoetan ageri da aipatutako ondasun horien kokapena.

6. – UDALERRIKO HIRIGINTZA-, ARKITEKTURA- ETA HISTORIA-ONDAREAREN BABES-ERREGIMENA

Udalerriko hirigintza-, arkitektura- eta historia-ondarea osatzen duten elementuen babes-erregimena izaera orokorrez aplikatu beharreko lege-xedapenek osatzen dute, hau da, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak eta Ondare Hiritartua eta Eraikia Birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko 317/2002 Dekretuak, eta elementu bakoitzari dagozkion xedapenek —batetik, udalaz gaindiko erakundeen dekretuek, eta bestetik, Hernaniko planeamendu orokorraren agiri honek—.

Lau babes-erregimen desberdin daude:

6.1 I – Motako Babesa: Kalifikatutako Kultura Ondasun gisa izendatutako Monumentuak eta Monumentu Multzoak.

Lehen aipatutako izaera orokorrez bete beharreko arauez gain, honako hauek dira babestutako elementu bakoitzari dagozkion zehaztapen bereziak:

* Hernaniko Hirigune Historikoa (I-1): Hernaniko Hirigune Historikoa Monumentu Multzo kategoriarekin Kultura Ondasun gisa sailkatzen duen abenduaren 29ko 544/1995 Dekretuan (1996ko urtarrilaren 16ko EHAA) ezarritakoa da babes-erregimena.

* San Agustin Komentua (I-2): uztailaren 30eko 157/2001 Dekretuan ezarritakoa da babes-erregimena; 157/2001 Dekretuaren bitartez, 1990eko uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen aurreikuspenetara egokitzen da Kultura Ondasun Kalifikatuan Monumentu kategoriarekin sailkatuta dagoen San Agustin Komentuari buruzko espedientea (2001eko abuztuaren 21eko EHAA).

* Done Jakue Bidea, Trazatua eta Fagollagako Zubia (I-3): Done Jakue Bidea Monumentu Multzo kategoriarekin Kultura Ondasun gisa sailkatzen duen urtarrilaren 25eko 14/2000 Dekretuan (2000ko otsailaren 11ko EHAA) ezarritakoa da babes-erregimena.

Eremu eta eraikin horiei eragiten dieten jarduerek, eta aipatutako lege-xedapenetan aurreikusitako egoeraren batean dauden jarduerek kultura-ondarea babesteko arloan eskumena duen Administrazioaren txostena (Udalaren baimena baino lehenago) bete beharko dute.

6.2 II – Motako Babesa: 1997ko irailaren 23an onartutako “Hernaniko Hirigune Historikoaren Birgaikuntzarako Plan Bereziaren” katalogoan gaineratutako elementuak.

1997ko irailaren 23an onartutako “Hernaniko Hirigune Historikoaren Birgaikuntzarako Plan Bereziak” (1997ko urriaren 9ko EHAA) bertako eraikinak eta elementuak tratatu eta babesteko erregimena finkatzen du.

Planeamendu orokor honetan aurreikusitako “Hirigune Historikoaren Birgaikuntza Integralerako Plan Bereziaren” berrikuspena egiten bada, Hernaniko Hirigune Historikoa Monumentu Multzo kategoriarekin Kultura Ondasun gisa sailkatzen duen abenduaren 29ko 544/1995 Dekretuan (1996ko urtarrilaren 16ko EHAA) ezarritako oinarrizko babes-erregimena mantendu beharko da, eta aipatutako Plan Bereziaren xedapenak osatuko ditu.

6.3 III – Motako Babesa: Euskal Autonomia Erkidegoko Monumentu edo Monumentu Multzo gisa izendatzeko proposatutako elementuak.

Monumentu edo Monumentu Multzo gisa izendatzeko proposatutako elementuen kasuan, “Zaharberritze Zientifikoa” eta “Kontserbaziorako Zaharberritzea” egiteko jarduerak bakarrik egin ahal izango dira, Ondare

Hiritartua eta Eraikia Birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren I. Eranskinean (2002ko abenduaren 31ko EHAA) definitzen denaren arabera.

Ondasun eta elementu horietan exekutatu nahi diren lan eta jarduketek kultura-ondarea babesteko arloan eskumena duen Administrazioaren nahitaezko txostena bete beharko dute.

6.4 IV – Motako Babesa: Udal babesa behar duten elementuak.

Udal babesa behar duten elementuen kasuan, horien bolumetria, kanpoko irudia eta oinarrizko tipologia-ezaugarriak mantentzeko neurriekin lotuta egongo da elementu horiek tratatu eta babesteko erregimena.

* Kategoria honetan dauden eraikin eta elementuen kasuan, “handitze-lanik gabeko eraikinetan esku hartzea” deiturikoen kategoriari dagokion erregimena aplikatuko da, eta horien barnean, “Berrikuntzarako” jarduerei dagokiena, Ondare Hiritartua eta Eraikia Birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren I. Eranskinean (2002ko abenduaren 31ko EHAA) definitzen den moduan.

* Kategoria honen barnean sartzen diren interes etnologikoko partzela-konfigurazioei dagokienez, honako hau dio aplikatu beharreko babes-erregimenak:

- Ez da baimenduko finkak banatzea edo eranstea, lursailak zatitzea, mugak aldatzea edo “sarobeen” (zirkulu perimetrala) eta “zilegien” (tontorretik bailarara, zabalera konstanteko eta aldez aurretik zehaztutako batez besteko zabalerako zerrendetan) berezko partzela-konfigurazioa aldatuko duten jarduerak gauzatzea (bideak irekitzea eta abar).

- Ezin izango da eraikin edo instalazio osagarririk eraiki babestutako partzela-konfigurazio horiek osatzen dituzten eremuetan.

Hala badagokio, Udalak elementu horiek babestu eta kontserbatzeko Plan Berezi bat idatzi ahal izango du, horrela, elementu horien eta babestu beharreko zati zehatzen balorazioa sakontzeko, eta bakoitzaren babes-erregimen zehatza zehazteko.

7. – UDALERRIKO ARKEOLOGIA-ONDAREAREN BABES-ERREGIMENA

Udalerriko arkeologia-ondarea osatzen duten elementuen babes-erregimena izaera orokorrez aplikatu beharreko lege-xedapenek osatzen dute, hau da, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak eta elementu bakoitzari dagozkion xedapenek —udalaz gaindiko erakundeen dekretuetan dute jatorria denek—.

Hiru babes-erregimen desberdin daude:

7.1 Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erregistroan Monumentu Multzo kategoriarekin inskribatutako arkeologia-guneak.

2003ko ekainaren 24ko 137/2003 Dekretu bidez (2003ko uztailaren 8ko EHAA) Gipuzkoako estazio megalitikoetako arkeologia-guneak kalifikatu ziren, horien artean, Hernaniko udalerrian daudenak. Dekretu horretan, aipatutako arkeologia-guneak mugatu eta babesteko erregimena ezartzen da.

7.2 Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean Monumentu Multzo kategoriarekin inskribatutako arkeologia-gunea.

1998ko otsailaren 12ko Agindu bidez, Hernaniko Hirigune Historikoa arkeologia-gune inbentariatu gisa izendatu zen (1998ko martxoaren 31ko EHAA). 7/1990 Legearen 45.5 artikuluan xedatzen den moduan, Agindu horretan mugatu eta deskribatutako Arkeologia Guneetan gauzatu beharreko jarduketa eta lan guztiek Foru Aldundiaren baimena beharko dute dagokion arkeologia-proiektua aurkeztu ondoren.

7.3 Presuntzio arkeologikoko guneak.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren 1996ko azaroaren 11ko Ebazpen bidez, Hernaniko udalerriko presuntzio arkeologikoko guneen aldez aurretiko sailkapena egin zen (1997ko otsailaren 21eko EHAA). Gune horietan jardun aurretik, orubeak duen balio arkeologikoari eta proiektuak izan ditzakeen ondorioei buruzko azterlan bat egin behar da. Azterlan hori oinarritzat hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu arkeologiko bat idazteko, eta hala badagokio, haren irismena finkatzeko beharra zehaztuko du, 7/1990 Legearen 49. artikuluan eta 1996ko urriaren 8ko 234/1996 Dekretuaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.

8. – <u>UDALERRIKO NATURA-ONDAREAREN BABES-ERREGIMENA</u>

Udalerriko natura-ondarea osatzen duten elementuek behar duten babesaren arabera, bi erregimen mota finkatu dira:

8.1 Babes berezia behar duten naturako elementuak.

Natura-guneen arau orokorren (funtsean, Euskal Herriko natura babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legea) eta horietako bakoitzari dagozkion zehaztapen berezien araberakoa da elementu hauen babes-erregimena.

<u>* Interes Komunitarioko Lekuak (IKL) eta Natura Gune Babestuak</u>

92/43/EEE Arteztarauak (haren transposizioa abenduaren 7ko 1997/1995 Errege Dekretuan zehazten da), hau da, habitat naturalak eta basoko flora nahiz fauna kontserbatuta bioaniztasuna bermatzen laguntzeko

neurriak ezartzen dituenak, Interes Komunitarioko bi Leku finkatzen ditu Hernaniko udalerrian: Aiako Harria (Kodea: ES2120016) eta Urumea Ibaia (Kodea: ES2120015).

Bi IKL horietan Arteztarau horretako zehaztapenak aplikatu behar dira (6. artikuluko 2, 3 eta 4 atalak), eta bereziki, haren 6.2 artikuluan zehaztutako prebentzio-erregimena.

Bestalde, Aiako Harriko IKLak Natura Parkearen izendapena ere badu, Euskal Herriko Natura babesteko ekainaren 30eko 16/94 Legeari jarraiki. Horrenbestez, honako arau hauek ere bete behar ditu:

* Aiako Harria Natura Parke izendatzen duen 241/1996 Dekretua.
* Aiako Harria aldeko Natura Baliabideen Antolamendurako Plana onartzen duen apirilaren 11ko 240/1995 Dekretua.
* Aiako Harriko Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzailearen zati arautzailea onartzen duen apirilaren 16ko 87/2002 Dekretua.

Gainera, Bisoi Europarraren eta Muturluze Piriniarraren Kudeaketa Planak onartu zituen 2004ko maiatzaren 12ko Foru Araua ere aplikatu beharko da babestutako bi leku horietan.

<u>* Zuhaitz Bereziak</u>

Eusko Jaurlaritzaren Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren otsailaren 11ko 23/1997 Dekretu bidez (1997ko otsailaren 25eko EHAA), Goiz Eguzki parkeko Ginkgo Biloba zuhaitza EAEko zuhaitz berezi gisa izendatu zen. Horrenbestez, maiatzaren 16ko 265/1995 Dekretuan (1995eko ekainaren 8ko EHAA) ezarritako babes-erregimena izango da aplikatu beharrekoa.

Halaber, Hernaniko Udalak EAEko zuhaitz bereziaren izendapena eskatu dio Eusko Jaurlaritzaren Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailari Nere Borda Parkeko Pinus Radiata zuhaitzarentzat ere. Behin-behineko izaeraz, izendapen hori gauzatzen ez den bitartean, zuhaitz horrek ere maiatzaren 16ko 265/1995 Dekretuan (1995eko ekainaren 8ko EHAA) ezarritako babes-erregimena bete beharko du.

8.2 Udal babesa behar duten naturako elementuak.

Elementu hauen babes-erregimena (Hiri Parke Publikoak) planeamendu orokor honetako Hirigintza Arau Orokorren 82.5 artikuluak ezartzen du eta horietan dauden botanika- eta paisaia-balioak mantentzea da helburua.

Eremu horiek egokitu eta mantentzeko esku-hartzeek balio horien iraunkortasuna bermatu behar dute.

Hala badagokio, Udalak elementu horiek babestu eta kontserbatzeko Plan Berezi bat idatzi ahal izango du, horrela, elementu bakoitzaren babes-erregimen zehatza zehazteko.

ERANSKINA – KATALOGATUTAKO ELEMENTUEN DESKRIBAPENA

Katalogo honetan gaineratutako hirigintza-, arkitektura- eta historia-ondareko elementuen artean, batzuk monumentu edo monumentu-multzo gisa izendatuta daude dagoeneko, eta beste batzuk Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egindako Euskal Herriko Historia eta Arkitektura Ondarearen Behin Behineko Inbentarioko zerrendetan daude “EAEko monumentu/monumentu-multzo gisa izendatzeko proposatutako Ondasun Higiezin” edo “udalerri mailan babesteko proposatutako Ondasun Higiezin” gisa izendatuta; gainerakoak ez dira aipatutako zerrendetan berariaz azaltzen, baina 1996an behin betiko onartutako Hernaniko Udalerriko Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioen Ondarearen Katalogoan gaineratuta zeuden dagoeneko gehienak.

Katalogo honen edukia eta proposamenak justifikatzeko ez da beharrezkotzat jo aurreko paragrafoan aipatutako ondasun higiezinen lehen bi multzoetan sartzen diren hirigintza-, arkitektura- eta historia-ondareko elementuen deskribapena gaineratzea; izan ere, elementu horien izendapenerako ezaugarri eta balioei erreferentzia egitea, edo elementua bera lehen aipatutako Euskal Herriko Historia eta Arkitektura Ondarearen Behin Behineko Inbentarioan sartu dela aipatzea nahikoa dela ulertzen da.

Aitzitik, beharrezkotzat jo da Inbentarioaren edukia osatzea; horretarako, hirugarren taldeko elementuen deskribapena gaineratu da, hau da, Katalogo honetan III - Motako eta IV - Motako babes-erregimena dutenena.

A.- Euskal Autonomia Erkidegoko Monumentu edo Monumentu Multzo gisa izendatzeko proposatutako elementuen Deskribapen Osagarria.

III-5 .- SANTA KRUZ SANTUTXOA

Elizatxoko 1 zenbakian dago, Lizeagatik Portu auzora jaisteko eskaileren ondoan. Kokatuta dagoen auzoari izena ematen dio.
Oinplano angeluzuzeneko eta solairu bakarreko eraikin salbuetsia da. Hiru fatxada itsuk kapera mugatzen dute. Alboetako bi fatxadak ageriko harri-hormaz eginda daude eta harlanduzko izkina-harriak dituzte; hirugarren fatxada, ordea, adreiluz eta egurrezko armazoiz eginda dago. Santutxoaren laugarren fatxada (fatxada nagusia) irekia da eta haren baoa bitan zatitzen du hareharriz eginiko toskanar ordenako zutabe batek; burdin forjatuko sare sinple batek ixten ditu biak. Barnealdean, aldarearen gainean, antzinako gurutzaduraren hareharrizko zutabea dago. Bi isurialdeko estalkia du, eta ageriko egurrezko solibak eta ertz landuak ditu.
1767. urteko eraikina da, hasierako kokalekutik lekualdatu behar izan baitzuten Errege Bidearen trazatua dela eta. Jatorrizko santutxoa 1570. urtekoa zen.

Kontserbazio-egoera ona.

1996an behin betiko onartutako Hernaniko Udalerriko Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioen Ondarearen Katalogoan sartuta dago. Hernaniko Hirigune Historikoaren Birgaikuntzarako Plan Bereziak babesten duen elementua da.

III-6 .- LIZEAGAKO ZUBIBIDEA

Bere urak Portu auzoan (Txingurri Txulo) isurtzen dituen ibaiaren ibarra zeharkatzen duen zubibidea. Gatzagatik Irunera doan Errege Bidean dagoen Hernaniren sarbideari jarraitzen dion tartea da. Harlanduzko erdi-puntuko zortzi arkuk osatzen dute. Duela gutxi Lizeaga kaleko 3 zenbakiko etxea eraitsi zen, eta horrenbestez, gaur egun agerian dago zubibide gehiena, Lizeaga kaleko 1 zenbakiko etxeari atxikita dagoen zatia izan ezik.

1767an exekutatu zen, Francisco de Ibero eta José Antonio Arzadun arkitektoek egindako proiektuaren arabera. Errege Bidearen eraikuntza-lanen barnean eraiki zen. Lehendik zegoen etxe bat eraitsi eta Santa Kruz Santutxoa gaur egun dagoen lekura lekualdatu behar izan zen.
Tamaina handiko (85 m.l. arku bidez eutsitako zatian) ingeniaritza zibileko obra berezia da.

Kontserbazio-egoera ona.

1996an behin betiko onartutako Hernaniko Udalerriko Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioen Ondarearen Katalogoan sartuta dago. Hernaniko Hirigune Historikoaren Birgaikuntzarako Plan Bereziak babesten duen elementua da.

III-10 .- PIKOAGA ZENTRAL HIDROELEKTRIKOA (ABILATS)

III-11 .- EREÑOTZU ZENTRAL HIDROELEKTRIKOA

III-12 .- FAGOLLAGA ZENTRAL HIDROELEKTRIKOA

XX. mendeko lehen herenean eraikitako energia elektrikoa ekoizteko eraikin eta elementu hidraulikoak (presa txikia, ubidea eta abar).

Kontserbazio-egoera onean daude, eta jatorrizko ekipamendu mekanikoa eta elektrikoa mantentzen dute.

Udalerriko Ondarearen Katalogoan sartzeko proposamen berria; izan ere, Lastaola eta Pagoaga Zentralekin batera (Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egindako Euskal Herriko Historia eta Arkitektura Ondarearen Behin Behineko Inbentarioan sartuta daude dagoeneko), Hernaniko mota honetako industria-ondarearen (zentral hidraulikoak) multzo osoa osatzen dute.

B- Udal babesa behar duten elementuen Deskribapen Osagarria.

IV-1 .- SANTA BARBARA ERMITA

Santa Barbara mendiaren gailurrean dago, izen bereko gotorlekuaren goialdean.

Salbuetsitako eraikin txiki bat da, solairu bakarrekoa eta zirkulu-formako trazakoa. Kaperara sartzeko sarrerako arkuak eta kanpai-horma batek —teilatuaren gainean gurutze bat du, erremate moduan— osatzen dute fatxada nagusia. Harri-horma ilaratuz egina dago eta estalki inklinatua du.

1955ean eraiki zen lehendik zegoen beste bat ordezkatzeko —hasierako eraikinaren lehen aipamenak XVII. mendearen hasierakoak dira—.

Kontserbazio-egoera ona.

1996an behin betiko onartutako Hernaniko Udalerriko Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioen Ondarearen Katalogoan sartuta dago.

IV-4 .- SAN JOSE PARROKIA (FLORIDA)

Florida kaleko 35 zenbakian dago.

Atxikitako bi gorputz ditu: batek oinplano angeluzuzena eta hiru solairu ditu, eta parrokiari dagokio; besteak solairu bakarra eta oinplano triangeluarra ditu, eta tenpluari dagokio. Bi gorputz horiek behe-solairuko ataripe batek lotzen ditu. Elizak bi isurialdeko estalkia du; haren gainean piramide-formako altuera handiko zinborio bat dago eta gurutze metaliko bat du goialdean, erremate moduan —presbiterioaren gainean—. Harri-hormako itxitura du behe-solairu osoan; gainerako guztia zarpiatuta dago eta egitura-detaileak ditu ageriko hormigoian. Interesgarria da bolumetriaren eta paisaiaren aldetik.

1968an eraiki zen Vicente Guibert Azkue arkitektoaren proiektua oinarritzat hartuta.

Kontserbazio-egoera ona.

Udalerriko Ondarearen Katalogoan sartzeko proposamen berria, hiri-testuinguruan ondo lekukotzen den eraikin berezi bat delako eta 60. hamarkadako erlijio-arkitekturaren adibide bereizgarri bat delako.

IV-5 .- LONJA-ETXEA

Portu auzoan dago.
Hiru solairuko, oinplano angeluzuzeneko eta bi isurialdeko eraikina da. Fatxada nagusia ageriko harri-hormaz egina dago, eta gainerako fatxadak zarpiatuta daude. Harlanduzko izkina-harriak ditu.
.XIX. mendeko eraikina.

Kontserbazio-egoera ona.

1996an behin betiko onartutako Hernaniko Udalerriko Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioen Ondarearen Katalogoan sartuta dago.

IV-7 .- ALTZEGA BASERRIA

Zikuñaga auzoan dago.

Hiru solairuko eraikin angeluzuzena. Zarpiatutako harri-hormak ditu. Luzera desberdineko bi isurialdeko estalkia du. Harrizko armarria du, eta barrualdean, kapera bat izan zitekeenaren arrastoak eta dolare bat daude.

Hernaniko antzinako leinu baten baserria zen, 1625 eta 1870eko erreferentziak egiten dira agirietan.

Kontserbazio-egoera: baserriaren barrualdean zein kanpoaldean egin diren ondoz ondoko berrikuntzen eraginez, jatorrizko arkitektura-ezaugarri nagusiak galdu egin ditu.

Udalerriko Ondarearen Katalogoan sartzeko proposamen berria; Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondarearen Zuzendaritzak emandako zerrendatik hartu da haren erreferentzia.

IV-10 .- LONJA-BASERRIA

Ereñotzu auzoan dago.

Bi solairuko (erdisotoa eta behe-solairua), oinplano angeluzuzeneko eta bi isurialdeko eraikina da. Zarpiatutako harri-hormaz egindako fatxadak ditu.

XIX. mendeko eraikina.

Kontserbazio-egoera kaskarra.

1996an behin betiko onartutako Hernaniko Udalerriko Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioen Ondarearen Katalogoan sartuta dago.

IV-11 .- KARABELGO ZUBIA

Urumea ibaiaren gainean dago.

Karabelgo ibaiertza Akerregirekin lotzen duen zubia da. Hernanitik Nafarroara doan antzinako bidearen trazatuan dago. Harlanduzko erdi-puntuko bost arku ditu, eta horiek sostengatzen dute hormigoizko zubi-gain zabala; letoizko armarriz apainduta dauden altzairuzko barandak ditu inguruan.

Zubia 1805. urtekoa da —P. Manuel Ugartemendiaren lana—, eta Juan López Izaguirrek 1558an egin zuen egurrezko zubia ordezkatzen du. Zubi-gaina eta barandak zabaltzeko lanak 80. hamarkadaren erdialdera aldera egin ziren.

Kontserbazio-egoera ona.

1996an behin betiko onartutako Hernaniko Udalerriko Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioen Ondarearen Katalogoan sartuta dago.

IV-12 .- KARABELGO ZUBIBIDEA

Akerregiko ibaiertza Hernaniko Hirigune Historikoarekin lotzen duen zubibidea da, Zinkoeneako zubibidea ere deitua. 400 m.l. inguruko luzera du. Ergobiara doan errepidearen trazatuaren zati bat da, Errege Bide zaharra ordezkatu zuena trenbideak eten baitzuen. Zubi-gaina hormigoi armatuz egindako erdi-puntuko arkuen gainean sostengatzen da, eta harlanduzko dobelak eta pilareak ditu.

1949an eraiki zen, D. J.Mª Gabarain bide-ingeniariak egindako proiektuaren arabera —Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatuta—. 2009an zubi-gaina birmoldatu eta zabaldu egin zen.

Kontserbazio-egoera ona.

1996an behin betiko onartutako Hernaniko Udalerriko Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioen Ondarearen Katalogoan sartuta dago.

IV-14 .- OLABERRIA ZUBIA

Etxolaberri errekako zubitik behera (ziur aski, erromatar egiturakoa) dago. Errekan gora dagoen eta XIX. mende amaieratik 1920. hamarkadara arte martxan egon zen meategi-gunera joateko irispidearekin lotuta dago.

Arku peraltatu bakarreko zubia da eta horma-bular zuzenak ditu euskarri gisa. Kareharrizko harlanduzkoz egina dago.

Kontserbazio-egoera ona.

Udalerriko Ondarearen Katalogoan sartzeko proposamen berria; Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondarearen Zuzendaritzak emandako zerrendatik hartu da haren erreferentzia.

IV-17 .- BITERI ESKOLAK (KULTUR ETXEA)

Nafar kaleko 18 zenbakian daude kokatuta.

“H” formako oinplanoa duen eraikin salbuetsia da. Juan Urbietarekin muga egiten duen aldeak hiru solairu ditu, eta besteak, berriz, bi. Probintzia osoko Biteri Eskolen tipologia bera du. Nafarroa kalera ematen duen eraikinaren zatiak kalitate arkitektoniko hobea du: harri-hormaz egindako oinaldea eta ageriko adreiluz inguratutako baoak ditu.

Hormatal trinkoak zarpiatuta daude. Fatxada nagusiaren erdian pinakulu bat ikus daiteke simetria-ardatzean kokatuta, sarrera-atearen gainean. Zeramikazko teila lauz egindako lau isurialdeko estalkia du.

Eraikinaren zati nagusia 1907an amaitu zen J.J. Aguinaga arkitektoaren proiektua oinarritzat hartuta. 80. hamarkadaren erdialdera aldera, Juan I. Elizondo arkitektoaren proiektua oinarritzat hartuta, eraikina hustu, birmoldatu eta birgaitu egin zen Kultur Etxe gisa egokitzeko.

1996an behin betiko onartutako Hernaniko Udalerriko Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioen Ondarearen Katalogoan sartuta dago.

IV-18 .- ZIKUÑAGAKO AMA HAURTZAINDEGIA

Karobieta auzoko 60 zenbakian dago.

Bi solairuko, isurialde bakarreko estalki inklinatuko eta kristalezko bao handiko eraikin salbuetsia. Gerraosteko arkitektura arrazionalistaren adibide bat da. Gizarte Laguntzako Institutu Nazionalak eraiki zuen 1961. urtean. Gaur egun, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako zentro-egoitza bat da.

Kontserbazio-egoera ona.

1996an behin betiko onartutako Hernaniko Udalerriko Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioen Ondarearen Katalogoan sartuta dago.

IV-19 .- LATSUNBE AUZOKO ERAIKINAK ETA PARTZELAK

Bertan sartu behar dira Ave Maria, Rosario, Oriamendi, Sorgintxulo, Amalia, Gure Borda eta Nere Borda etxeei (Latsunbe auzoko 28. zenbakitik 46. zenbakira arte) atxikitako eraikin eta parkeak. Area horretan sartu nahi dira XX. mendearen lehen hereneko Hernaniko hirigintza-garapenaren, eta garai hartako jarraibide kultural eta sozialen erreferente izan diren (hirigintzaren, arkitekturaren eta paisaiaren aldetik) etxe-multzo horretako gune libreen erabilera, partzelazioa eta eraikinak.

Isolatuta dauden familia-eraikinak dira eta arkitektura “erregionalista” dute; lorategi-partzeletan kokatuta daude, eta balio handia dute botanikaren eta paisaiaren aldetik.

Kontserbazio-egoera ona.

1996an behin betiko onartutako Hernaniko Udalerriko Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioen Ondarearen Katalogoan sartuta dago.

IV-21 .- KORONELAREN HARRIA

"Ingelesaren Harria" ere deitzen zaio eta erdibitutako tamaina handiko hareharrizko harri zabal bat da; gainera, oroitzapenezko inskripzio bat du. Testuak (ezabatuta dago zati batzuetan) XVIII. mendeko gertakari beliko bat deskribatzen du —Barwick Dukearen 1719ko Donostiako garaipenari egin diezaioke erreferentzia—.

Kontserbazio-egoera nahiko ona.

Udalerriko Ondarearen Katalogoan sartzeko proposamen berria; Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondarearen Zuzendaritzak emandako zerrendatik hartu da haren erreferentzia.

V-22 .- ONDDI ORONA DORREA

Lastaola auzoan dago, Orona S. COOP. enpresaren partzelan.

Ageriko hormigoi armatuz eginiko dorre salbuetsia —igogailu-probak egiteko, 71 metro luzekoa—.

Luis Peña Gantxegi arkitektoak 1994an egindako proiektua.

Kontserbazio-egoera ona.

Udalerriko Ondarearen Katalogoan sartzeko proposamen berria, paisaiaren aldetik interes handiko eraikina delako eta Peña Gantxegi arkitektoaren obrako elementu nabarmena delako (CSCAEren Arkitekturaren Urrezko Domina —2004an— eta Eusko Jaurlaritzaren Arkitekturaren Munibe Saria —1997an—).

IV-23 .- INTERES ETNOLOGIKOKO PARTZELAZIOAK

Jatorrizko partzela-itxura bera mantentzen duten zazpi sarobe eta zilegi bat katalogatu dira.

Hiru sarobe Akolako hegaletan daude: IV-23.1 Akola-1, IV-23.2 Akola-2 eta IV-23.3 Akola-3.
Hiru sarobe Onddiren hegalean daude: IV-23.4 Onddi-1, IV-23.5 Onddi-2 eta IV-23.6 Onddi-3.
Sarobe bat Muliskoren hegalean dago: IV-23.7 Igerola-1
Zilegia Etzioren hegalean dago: IV-23.8 Etzio-1

1996an behin betiko onartutako Hernaniko Udalerriko Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioen Ondarearen Katalogoan sartuta daude.

IV-24 .- OSINAGA ERROTAKO PRESA ETA UBIDEA

Jada desagertu den Osinagako errotatik gaurdaino iritsi zaizkigun elementuak dira, errota bera XVI. mendea baino lehenagokoa da. Presa eta ubidea Otsoenea errekan daude, Errotaran baserriaren inguruan.

Kontserbazio-egoera ona.

Udalerriko Ondarearen Katalogoan sartzeko proposamen berria, Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina jendaurrean erakusgai jartzeko izapidean egina.

IV-25 .- OIHANEDERREKO ZUBI ESEKIA

Urumea ibaiaren gaineko oinezko pasabidea da. XX. mendearen erdialdekoa da. Eraikuntza-sistema altzairuzko kable atezatuez egina da, oinarrian oholezko korridore bat duena. Urumearen ibarrak industrializatzean landa-lurretarako sarbideek izandako eraldaketaren aztarna dotorea da, eta ibaiko paisaiaren elementu bereizgarria.

Kontserbazio-egoera ona.

Udalerriko Ondarearen Katalogoan sartzeko proposamen berria, Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina jendaurrean erakusgai jartzeko izapidean egina.

IV-26 .- ELORRABIKO ZUBI ESEKIA

Urumea ibaiaren gaineko oinezko pasabidea da. XX. mendearen erdialdekoa da. Eraikuntza-sistema altzairuzko kable atezatuez egina da, oinarrian oholezko korridore bat duena. Urumearen ibarrak industrializatzean landa-lurretarako sarbideek izandako eraldaketaren aztarna dotorea da, eta ibaiko paisaiaren elementu bereizgarria.

Kontserbazio-egoera ona.

Udalerriko Ondarearen Katalogoan sartzeko proposamen berria, Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina jendaurrean erakusgai jartzeko izapidean egina.

IV-27 .- URUMEA IBAIKO GARBITEGIA (OIHANEDER)

Ibaiertzean egokitutako arropa-garbitegi bat da, garbitzeko bi taula (beste bat desagertu da) eta erreten bat dituena. Agidanean, XX. mendearen hasierakoa da. Garbitzeko eta gorputza bermatzeko elementuak harlanduzko piezez eginak dira. Osinagako landa-auzoari zerbitzu publikoa ematen zion elementu bat da, interes etnologiko handikoa.

Kontserbazio-egoerari dagokionez, zaharberritu beharra dago eta uhaldiek kaltetutako piezak birjarri behar dira.

Udalerriko Ondarearen Katalogoan sartzeko proposamen berria, Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina jendaurrean erakusgai jartzeko izapidean egina.

IV-28 .- TOLARIETAKO ZUBIA

Tolarietako errekan dagoen multzotik ale bikainena da. Izen bereko baserriaren parean kokaturik dago. Jatorria ezezaguna du. Ibilguaren gainean erdi-puntuko arku bat du, eta zubi-brankak alboetara. Eraikuntzari begira, kareharrizko silarrixkaz egina dago. Zubiak eraikitzeko teknika agerian uzten duen aztarna ederra da, ondareari begira interes handikoa.

Kontserbazio-egoera ona.

Udalerriko Ondarearen Katalogoan sartzeko proposamen berria, Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina jendaurrean erakusgai jartzeko izapidean egina.

IV-29 .- HARRIATSUKO ESKOLAK

Hernaniko Udalak 1930ean eraikitako landa-eskolaren eraikina da.

Kontserbazio-egoera ona. Egokitzapen-lanak egin ondoren barrualdea erabat aldatu da, ekipamendu soziokultural gisa.

Udalerriko Ondarearen Katalogoan sartzeko proposamen berria, Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina jendaurrean erakusgai jartzeko izapidean egina.

IV-30 .- FUSILAMENDUEN HORMA

Udal Hilerriko itxitura-hormaren zati bat da, esparrua mendebaldetik mugatzen duena.
Harlangaitzezko fabrika-horma bat da, zati batean zarpiatua. Gerra Zibilean (1936-39) izan ziren fusilamenduak oroitzeko monumentu-multzoaren baitakoa da.

Kontserbazio-egoera ona.

Udalerriko Ondarearen Katalogoan sartzeko proposamen berria, Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina jendaurrean erakusgai jartzeko izapidean egina.

Hernanin, 2011ko apirilean

ERREDAKZIO-TALDEA: HERNANIKO UDALEKO HIRIGINTZA-BULEGOA

Manuel Jiménez, arkitektoa

Nora Erdozia, arkitektoa

Arantza Arrazola, abokatua

LAGUNTZAILEAK:

- Ingurumen-eraginaren ebaluazio bateginaren azterlana: Ekolur S.L. – Tomás Aramburu, nekazaritzako ingeniari teknikoa.
- Mugikortasun Iraunkorraren Plana: Endara Injenieritza S.L. – Narciso Iglesias eta Garo Azkue, bide-ingeniariak.
- Urumea Ibaiaren Azterlan Hidrauliko Osagarria: Ikaur S.L. – Miguel Salaverria, bide-ingeniaria.